

**ALKATETZA
DEKRETUA**

2020 000000856

Espediente-zenbakia: 2020/IDA_DEK0434**Gaia:** Alarma egoera: Tributu eta zerga-bilketa arloko neurriak**Aurrekariak**

Lehenengoa: 2020ko martxoaren 14an alarma egoera onartu zen 463/2020 Errege Dekretu bidez. Errege dekretu honen 7. eta 9. artikuluen arabera, pertsonen zirkulazio-askatasuna mugatzen da eta hezkuntzari eta prestakuntzari eusteko neurriak hartzen dira hurrenez hurren.

Bigarrena: 2020ko martxoaren 17an, COVID-19ren inpaktu ekonomiko eta sozialari aurre egiteko premiazko ezohiko neurriei buruzko 8/2020 Errege Lege Dekretua onartu zen.

Hirugarrena: Koronabirusaren ondorioz 2020ko martxoaren 12an, 2020/740 Alkatetza dekretu bidez, eta Bermeoko Udalak argitaratutako bandoaren bitartez bertan Musika Eskola itxi egingo zela adierazi zen. Horretaz aparte, beste motatako tasei buruzko aipamena ere egiten zen.

Argudioak

Lehenengoa: COVID-19 koronabirusarekin lotutako osasun publikoko larrialdia dela eta, zerga-arloko neurri hauek onartu dira 2020ko martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren bidez. Zehazki, 33. artikulua lehenengo atalean honako jasotzen da :

"1. Los plazos de pago de la deuda tributaria previstos en los apartados 2 y 5 del artículo 62 de la Ley 58/2003, de 17 de diciembre, General Tributaria (...) que no hayan concluido a la entrada en vigor de este real decreto-ley, se ampliarán hasta el 30 de abril de 2020"

Adicionalmente, en el seno del procedimiento administrativo de apremio, no se procederá a la ejecución de garantías que recaigan sobre bienes inmuebles desde la entrada en vigor del presente real decreto-ley y hasta el día 30 de abril de 2020."

Zergei buruzko Lege Orokorraren 62. artikulua 2. eta 5. paragrafoak Administrazioak egindako likidazioen ondoriozko zerga-zorrei buruzkoak dira (2. paragrafoa), bai eta betearazpen-prozedura hasi ondorengo zorrei buruzkoak ere (5. paragrafoa).

Bigarrena: Martxoaren 17ko COVID-19ren ondoriozko premiazko tributu-neurriei buruz onartutako 1/2020 Foru Dekretu Arauemaileak hauek xedatzen ditu:



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E40003F48700Y5J5G2Z2Y5B9

Sinadurea eta data

ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 27/03/2020
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 27/03/2020
13:40:05

EXPEDIENTE ::
2020IDA_DEK0434

Data: 20/03/2020

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



"Artículo 2. Suspensión o prórroga del inicio de los plazos en determinados procedimientos tributarios.

Uno. El inicio de los procedimientos tributarios que, según la normativa tributaria vigente deba realizarse de oficio, se suspenderá hasta el 1 de junio 2020, en aquellos supuestos cuyo comienzo debiera producirse a partir del 16 de marzo de 2020."

"Artículo 3. Suspensión del término de determinados plazos en periodo voluntario.

Dos. Asimismo, el plazo de ingreso de las liquidaciones cuyo vencimiento se produzca a partir del 16 de marzo de 2020, se extenderá quince días naturales."

"Artículo 4. Suspensión de la tramitación de los procedimientos tributarios.

Uno. Los periodos de paralización de los procedimientos tributarios, cuyo inicio se haya producido con anterioridad al 16 de marzo de 2020, se entenderán como periodos de interrupción justificada para la persona obligada tributaria o dilaciones en el procedimiento por causa no imputable a la Administración tributaria y, en consecuencia, no se incluirán en el cómputo del plazo de resolución de los mismos, por el periodo transcurrido entre el momento de la paralización y el 1 de junio de 2020."

"Artículo 6. Aplazamientos vigentes.

Se retrasa un mes el pago del vencimiento correspondiente al mes de marzo de los aplazamientos que se encuentren concedidos, retrasándose, en consecuencia, un mes cada uno de los vencimientos restantes, sin que se devenguen intereses de demora en ninguno de los plazos por el período comprendido entre el 25 de marzo y el 25 de abril de 2020."

"Artículo 7. Suspensión transitoria de la notificación de las providencias de apremio.

El periodo ejecutivo de pago de las deudas que no sean ingresadas en el periodo voluntario de pago, cuando éste concluya entre el 16 de marzo de 2020 y el 1 de junio de 2020, se iniciará de acuerdo con lo establecido en el artículo 165 de la Norma Foral 2/2005, de 10 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Bizkaia. En estos casos, la Administración tributaria dictará la correspondiente providencia de apremio, que no será notificada en ningún caso con anterioridad al 1 de junio de 2020."

Foru Dekretu Arauemaile honetan adierazitakoa aplikagarria da Tokiko Ogasunei ere.

Hirugarrena: Apirilaren 2ko Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 4. artikulua, arabera, udalerriek zerga- eta finantza-ahalmena dute. 2/2005eko Zergen Foru Arau Orokorrak (1. artikulua), Uztailaren 29ko Zerga-bilketako Erregelamendu Orokorra onartzen duen 939/2005 Errege Dekretuaren arabera eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga-bilketako araudiaren arabera, Bermeoko Udalak ahalmen arauemailea dauka tokiko tributuen arloan.

Arau hauetan oinarriturik Bermeoko Udalak Kudeaketa, diru-bilketa eta ikuskapenari buruzko zerga ordenantza onartu zuen. Ordenantza honetan, besteak beste, erroldei eta kobrantzarako egutegiari buruzko aipamen hauek giten dira:



"6. artikulua.- Errolda:

1.- Zergapeko egitateak jarraitasuna badu, errolda batean sartuko da. Erroldan interesdunen adierazpenak, Udalak dituen datuak eta ikuskaritzak azalduko dira. Altak, bajak edo aldaketak gertatu eta hurrengo 15 egun baliodunen buruan jakinarazi beharko dira.

2.- Erroldak alkatetzaren erabakiz onetsiko dira urtero eta jendaurrean jarriko dira 15 egunez, ukitutako zergadunek haiek aztertu eta bidezkoztat jotzen dituzten erreklamazioak aurkez ditzaten, Foru Arauetan eta zuzenbide publikoko sarrerek arautzeko ordenantza espezifikotan ezarritakoari kalterik egin gabe.

3.- Erroldarekin batera, Udalak borondatezko ordainketarako epea argitaratuko du. Epe hori behin amaituta zordunak zenbatekoa osorik ordaindu ez badu, aldi exekutiboa hasiko da.

7. artikulua.- Kobrantzarako egutegia :

1.- Oro har, Udalak egutegi hau aurreko urtea amaitu baino lehen Alkatearen dekretuz onartuta edukiko du eta argitaratuta agertuko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta baita ere Udaleko bandoan.

- Ezohiko kasuetan, Alkateak aurreko puntuan ezarritakoetatik desberdinak diren epeak finkatu ahal izango ditu."

2020. urteko tributuen egutegia 2019ko urriaren 29ean 2020/2460 Alkatetza dekretuaren bitartez onartu zen eta 2019-11-28 datako 228. zenbakiko BAOn argitaratu zen. Alarma egoera onartu baino lehen igorritako erreziboak, baina ordainketa epeetan alarma egoera eragina duten tributuen eta alarma datatik aurrera igorri beharreko tributuen, egutegi honen arabera, hauexek dira:

TRIBUTUA	ALDIA	Jendaurrean 15 egun	Ordainketa	Ordainketa
			Hasiera	Hasiera
5 Azoka	Otsaila	Otsail. 19tik martx 4ra	2020/3/5	2020/4/6
6 Musika eskola	Otsaila	Otsail. 19tik martx 4ra	2020/3/5	2020/4/6
7 TMIZ	Urtekoa	Otsail. 19tik martx 4ra	2020/3/5	2020/4/6
8 Azokatxoa	1.Hiruhilekoa	Martxoak 5tik 20era	2020/3/23	2020/4/23
9 Kioskoak	1.Hiruhilekoa	Martxoak 5tik 20era	2020/3/23	2020/4/23
10 Azoka	Martxoa	Martxoa. 18tik apirila 1era	2020/4/2	2020/5/4
11 Musika eskola	Martxoa	Martxoa. 18tik apirila 1era	2020/4/2	2020/5/4

Ordainketa epeei buruz martxoaren 17ko COVID-19ren ondoriozko premiazko tributuen neurriei buruz onartutako 1/2020 Foru Dekretu Arauemailearen 3. artikuluan jasotakoa kontuan hartu da eta 2020ko martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 33. artikuluan xedatutakoa.

2020ko martxoaren 14an alarma egoera onartu zen 463/2020 Errege Dekretuaren 7. artikuluan jasotakoa kontuan hartu da, helbideraturik ez dauden kitapenak ordaintzeko gaur egungo zailtasunak, eta errezibo hauek Udaletik igortzeko aukera eta zailtasunak ere aztertu dira. Horretaz aparte, martxoaren 17ko 1/2020 Foru Dekretu Arauemailean ofiziozko prozedura tributarioei buruz xedatutakoa eta jada hasitako prozedura



tributarioen 2020-06-01 datara arteko etenaldia ere aztertu da. Bestalde, alarma egoeraren luzapen gehigarriak izatearen aukera ere aurreikusi da.

Azokaren tasa (otsaila), Musika Eskolaren tasa (otsaila), Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko Zerga, Azokatxoaren okupazio tasa eta Kioskoen tasaren erreziboak alarma egoera deklaratu baino lehen igorri ziren. Ordainketak egiteko epeak alarma egoera irauten duen epean oraindik zabalik daudenez, **eta goian adierazitako guztia kontuan hartuta, zabalik dauden ordainketa epe hauek 2020-06-01 datara arte luzatzea erabakitzen da.**

2020ko martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 33. artikuluan eta martxoaren 17ko 1/2020 Foru Dekretu Arauemailearen 7. artikuluan ere exekutiba aldiak dauden ordainketei aipamena egiten zaie. Beraz, Bermeoko Udalaren erabakia homogeneoa izateko xedearekin eta herritar partikularren ordaintzeko erak eta aukerak ere murriztu zirenez 2020ko martxoaren 12an 2020/740 Alkatetza dekretu bidez, **martxoaren 14tik aurrera zabalik zeuden beste tributuen ordainketa epeak, bai borondatezko epean, bai exekutiba epean, 2020-06-01 datara arte luzatzea erabakitzen da.**

Horretaz aparte, **Azoka (martxoa) eta Musika Eskolak (martxoa) tasen errolden kitapenak alarma egoera aldatu arte ez dira igorriko. Alarma egoera amaitzean eta erroldak jendaurreko 15 egunetan egon ostean, ordainketa epeak irekiko dira eta ordaintzeko azken eguna 2020-06-01 data izango da bi errolda hauetan ere.**

Laugarrena: 2020ko martxoaren 12an 2020/740 Alkatetza dekretu bidez eta 2020ko martxoaren 14an alarma egoera onartu zen 463/2020 Errege Dekretu bidez, udal zerbitzu zehatzak eta udalerriko antolaketaarako neurriak hartu ziren, eta pertsonen zirkulazio-askatasuna mugatzen zen, hurrenez hurren.

Abenduaren 16ko Toki Ogasunei buruzko 9/2005 Foru Arauan honako jasotzen da:

"27. artikulua. Sortzapena.

3. Zergapekoari ezin egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, zerbitzu publikoa, jarduera administratiboa edo herri jabariaren erabilera edo aprobetxamendurako eskubidea egin edo gauzatzen ez bada, dagokion zenbatekoa itzuliko zaio."

Bosgarrena: Musika Eskolan zerbitzuak emoteagaitik ordaindu beharreko Tasa arautzen dauden Ordenantza fiskalean honakoa jasotzen da:

"2. artikulua: EGITE EZARGARRIA

Tasaren egite ezargarrria Udalak musika inguruan arautu gabeko irakaskintza zerbitzuak emotea da.

Irakaskintza zerbitzu eskaintza ikasturte bakoitzerako Udal Musika Eskolak antolatutakoa izango da, Musika Eskolei jagokien legediaren eta Udal Musika Eskola Zerbitzuen Araudiaren arabera."



"5. artikulua: HOBARIAK

Aurreko artikuluan zehaztutako kuoten hobari eskubidea eukiko dabe ondorengo egoeran aurkitzen dirala kreditatzen daben ikasleak:

(...)

4. Zerbitzua emateko arazoengaitik hobariak:

1- Antolakuntza arazoekatik edo bestelako ezintasunagatik ikasgai batek hile baterako aurreikusita daukan bete beharreko ordu kopurua baino gutxiago beteten danean, ez emondako denboraren arabera zerrendako hobaria aplikatuko da ikasgaiaren kuota zatian eta zenbateko hori deskontatuko da hilabeteko kuota osotik."

GALDUTAKO KLASE ORDU KOPURUA	HOBARIA
%0 tik %25 era	%0
%26 tik %50 era	%25
%51 tik %79 ra	%50
%80 tik %100 era	%100

Musika eskolako formakuntza zerbitzuak itxita dauden heinean, Musika Eskolaren martxoko tasa kitapen guztiei %50eko hobaria aplikatuko zaie ofizioz. Horrela, kitapenak igortzean automatikoki proportzionalki bidaliko dira erreziiboak alarma egoera amaitu eta jendaurrean 15 egun egon ostean.

Seigarrena: 2020ko martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren bidez ostalaritza, jatetxe eta tabernen jarduerak ixteko agindua onartu zen. Beraz, abenduaren 16ko Toki Ogasunei buruzko 9/2005 Foru Arauaren 27. artikuluan jasotakoa kontuan hartu da.

*Irabazteko asmoagaz herri erabilerako lurrak mahai eta aulkiakaz okupatzeagaitik ordaindu beharreko tasa arautzen duen ordenantza fiskala, eta Herri erabilerako lurretan postu, barraka, salmenta-postu, ikuskizun edo atrakzioak ipintzeagaitik, kaleko industria ibiltariengaitik eta zinema errodateak egiteagaitik ordaindu beharreko tasa arautzen duen ordenantza fiskalak aztertu dira ostalaritzako okupazioen eta Goiko plazaren Azokatxoaren okupazioen tasak aztertzeko. **Alarma egoera onartu denetik, eta egoera hau amaitu arte, okupaziorik eman ez denez, mahaien eta aulkien okupaziogatik eta Azokatxoaren okupaziogatik igorri beharreko tasen kitapenak proportzionalki lainsiduko dira erroldetan ofizioz.***

Hau da, mahaien eta aulkien okupazioaren urteko tasaren kitapenak propotzionalki igorriko dira. Bestalde, 1. hiruhileko Azokatxoaren erreziiboari dagokion murrizketa proportzionala 2. hiruhilekoko erreziiboan aplikatuko da, aurreko erreziibo hau jada igorri delako.



Horretaz aparte, adierazitako araudiaren ondorioz **ixtako jabari publikoen kasuan** (Ordenantza fiskala, kioskoak bide publikoan jartzeagaitik ordaindu beharreko tasa arautzen duena), **alarma egoera irauten duen bitarteko epeari dagokion emakida edo okupazio tasarik ez da igorriko, eta dagozkien errezioben erroldak ofizioz lainduko dira.**

Zazpigarrena: 2020ko martxoaren 12an, 2020/740 Alkatetza dekretu bidez Gizarte eta kultura etxea, Nestor Basterretxea eta liburutegia ixteko agindu zen, beraz, data hauen artean, eta beti ere zerbitzu hauek Alkatearen aginduz eskaintzen ez diren bitartean, tarte hauei dagozkien tasarik ez da igorriko.

Zortzigarrena: Alarma egoera honen ondorioz epe honetan itxi behar izan diren jardueren zuzendutako Sastar-batzeko zerbitzuagaitik ordaindu beharreko tasaren hobariaren azterketa egiten ari da.

Ebazpena

Goian aipatutako guztia kontuan hartuta honako hau ebazten dut:

LEHENENGOA: Azokaren tasa (otsaila), Musika Eskolaren tasa (otsaila), Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko Zerga, Azokatxoaren okupazio tasa eta Kioskoen tasen zabalik dauden ordainketa epeak 2020-06-01 datara arte luzatzea..

BIGARRENA: Martxoaren 14tik aurrera zabalik zeuden tributuen ordainketa epeak, bai borondatezko epean, bai exekutiba epean, 2020-06-01 datara arte luzatzea.

HIRUGARRENA: Azoka (martxoa) eta Musika Eskolak (martxoa) tasen errolden kitapenak alarma egoera amaitu arte ez igortzea. Alarma egoera amaitzean eta erroldak jendaurreko 15 egunetan egon ostean, ordainketa epeak irekitzea, ordaintzeko azken eguna 2020-06-01 data finkaturik.

LAUGARRENA: Musika Eskolaren martxoko tasa kitapen guztiei %50eko hobaria aplikatzea ofizioz.

BOSGARRENA: Alarma egoera onartu denetik, eta egoera hau amaitu arte, mahaien eta aulkien okupaziogaitik, Azokatxoaren okupazioagaitik eta udal jabari publikoko itxi behar izan diren okupazioengaitik igorri beharreko tasen kitapenen erroldak ofizioz laintzea.


SEIGARRENA: Alarma egoera onartu denetik, eta egoera hau amaitu arte tributu kitapenik ez igortzea.

ZAZPIGARRENA: Sastar-batzeko zerbitzuaren tasaren hobaria aplikatzeko, Ordenantza fiskalaren aldaketa egiteko espedientea hasteko agindua ematea.



Alarma egoera dela eta, erabaki honek martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren 3. Xedapen Gehigarriaren arabera eragina izango du.
Debido al estado de alarma decretado por el Real Decreto 463/2020 de 14 de marzo esta resolución tiene los efectos contemplados en la Disposición Adicional 3ª de dicho Real Decreto.

Oharra: sinadurea eta datea orri-oinean .

 <p>STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI</p>	<p>Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu. Kodea: 07E40003F48700Y5J5G2Z2Y5B9</p>	<p>Sinadurea eta data ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 27/03/2020 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 27/03/2020 13:40:05</p>	<p>EXPEDIENTE :: 2020IDA_DEK0434 Data: 20/03/2020 Lekua: Bermeon Erregistro unidatea: Erregistro nagusia</p>
---	---	---	--

